

“Bistakoa da orain arte sexurako bakarrik ziren espazioek desagertzeko joera dutela”

Adélaïde de Catersekin solasean



Leire Milikua Larramendi
Arkitektoa eta Aldiri aldizkariko zuzendarikidea

Jasotze-data: 2017-06-13
Onartze-data: 2017-07-03

Adélaïde de Catersek (Brusela, 1969) Bruselako La Cambre ISACFn gauzatu zituen Arkitektura ikasketak, eta Bartzelonako Arkitektura Eskolan doktoratu zen La matière Réveillée. Aalto, Eisenstein et Proust tesiarekin. Gaur egun, genesi narratiboen inguruko bere ikerketekin darrai, literatura eta arkitekturaren inguruan, Paris, Bartzelona eta Brusela artean. Bere lanbide-jarduera argitalpen-aholkularitzaren inguruan ardatzen da nagusiki. «1.000 m2 desira. Arkitektura eta sexualitatea» erakusketaren komisario-lanak egin zituen CCCBko erakusketen buru den Rosa Ferrérekin batera. 2016ko urriaren 25aren eta 2017ko martxoaren 19aren artean egon zen ikusgai Bartzelonako Arte Garaikidearen Zentroan (CCCB). Erakusketaren inguruan galdetu diogu.

«1.000 m2 desira» erakusketak arkitektoak, artistak, ikertzaileak eta filosofoak biltzen zituen, arkitekturak eta espazioek desira sexualerako toki bezala duten botere izugarria aztertzeke. Era berean, fenomeno horiek biztanleriaren gaineko botere- eta kontrol-mekanismoen papera nola bete duten ere azaltzen zen, genero-estereotipoak sortuz, eta gizarte patriarkala indartuz. Nola jaiotzen da proiektua?

Gure portaera inguruneak zehazten duelako ustetik jaiotzen da proiektua. Hortik dator Argien mendeko filosofia materialistari eta sentsualistari eskainitako garrantzia, arkitektura esperientzia sentsorial bat bezala ulertzea ahalbidetzen baitute. Espazioak ziria sartzen digu nolabait, gure jokabidea manipulatuz.

Jarduerek espazioan duten banaketak ideologia-inpaktu bat eragiten du gure giza harremanetan. Arkitekturak,


habitatzeke eta harremanetan jartzeko eredu normatiboak betiketuz, gure gizarte patriarkaleko genero-estereotipoak sortzeko funtsezko laguntza eskaini du, espazioen erabileren antolamendu jakin baten bitartez.

Gainera, ikerketa honen jatorrian dagoen beste funtsezko ideia bat zera da: arkitektura gure sexu-fantasien faktore erabakigarria dela. Fantasiok agertokian jarri behar ditugu, eta horiek eraiki, izan lengoaiaren edota proiektatutako irudiaren bitartez. Horregatik, erakusten diren material askok fikzioan dute jatorria, eta horien espazio tipifikatuek gure imajinario kolektiboa osatzen dute: bukolikoak diren espazioetatik exotikoetara, luxuzkoetatik transgresiozkoetara.

Desiraren mekanismoak ere aztertu genituen, *voyeurismoa* esaterako; erakusketaren eszenografian hasieratik integratu nahi izan genuen osagaia izan zen hori.

Komisarioek hiru ardatz garatu zenituzten: Utopia sexualak (XVIII m.-XX m.), Babesleku libertinoak (XVIII m.-XX m.) eta Sexugrafiak (XX m.-XXI m.). Zertan datza bakoitza?

Lehenengoak, *Utopia sexualak* izenekoak, sexualitatea bizitzeko espazio-antolamendu zehatz bat imajinatu zuten arkitektoen, pentsalarien, artisten edo komunitateen proposamen espekulatiboak biltzen zituen, etxeko eremura murrizten ez ziren proposamenak. XVIII. mendeko eta XIX. mendearen hasierako hainbat proiektu aurkeztu genituen bertan, *Oikema* besteak beste, Claude-Nicolas Ledoux arkitektoak asmatutako Maitasunari eskainitako tenplua; *Parthenionak*, estatuko burdel perfektu antzekoak, Restif



Irudiaren egilea ~ Irati Eguren

de la Bretonne idazlearenak, edota Falansterioa, pasio-erakarpenean legeak gidatutako komunitatearentzat Charles Fourierrek sortutako eraikina.

Nolabaiteko jarraitutasuna ezarri genuen sexu-arkitektura horien eta utopia garaikidegoen artean; komunitate hippyen *modus vivendietatik* Nicolas Schöfferren proiektu ameslarietara, baita XX. mendeko arkitektura erradikaletara ere. Azken horien artean aurki ditzakegu Ettore Sottsass, Archigram eta Superstudio taldeak, Rem Koolhaasen OMA edo Ricardo Bofillen Taller de Arquitectura.

Babesleku libertinoak deituriko bigarren zatian, lehenengo zatian adierazitako espazio kolektiboetatik at garatu diren espazioak izan genituen mintzagai. Pribatua denaren eremu hertsira mugatu ginen, intimora, norbanakoaren fantasiara. Ibilbidea XVIII. mendean hasten zen berriz ere, eta XX. mendeko proiektuek ematen zioten segida mekanismo espazialen eta kodeen errepikapena agerian utziz, hala nola ezkutuko toki sekretuetarako, harpeetarako, ilusio optikoetarako eta gailu voyeuristetarako zaletasuna.

XVIII. mendeko *petite maison* galantetatik hasi eta *Playboy* aldizkariak iradokitako ezkongabeen sedukzio-apartamentuetara, Adolf Loos edo Carlo Mollino bezalako arkitektoen barne-diseinuetatik igarota, bigarren zati honek espazioek desira bultzatzeko duten boterea aztertu zuen. Sedukzio-estrategietan arkitekturak zentzumen-esperientzia gisa duen papera erakusten zuen, eta nola tramankulu eta mekanismoen diseinuaren inguruko sofistikazioak irudimen erotikoa izugarri handitzen duen.

Hirugarren zatiak, *Sexugrafiak*, pasio garaikideen kartografia batzuk aurkeztu zituen Jean-Didier Bergilez, Pol Esteve i Marc Navarro, Fito Conesa edo Ania Soliman bezalako arkitekto eta artisten proiektu espekulatibo berrietatik abiatuz. Sexurako espazio publiko edo erdipublikoak

ikertzen zituen, hasi parke edo kaleetatik eta sauna edo gela ilun gayraino. Besteren artean, Larry Sultanen *The Valley* eta Kohei Yoshiyukiren *The Park* maisutasunezko argazki sortak zeuden. Arkitektura informal horiek erabat kodifikatutako eta «erritualizatutako» gizarte-sistema bezala funtzionatzen dute.

Erakusketak Mendebaldeko gizartean sexurako espazioak XVIII. Mendetik hona, intimitatea jaiotzen unetik hona, nola proiektatu diren, eraiki diren eta imajinatu diren aztertzen eta azaltzen zuten. Zer ekarri zuten, bada, kontzeptu horrek?

Erakusketak intimitate-burbuilak aldarrikatu zituen, askatasun-zirikituak, kontrolatuak izan gabe ekitea ahalbidetzen digutenak. Intimitatearekiko nahi hori XVIII. mendean finkatzen da, Frantzian: Luis XIV.aren heriotzaren ondoren, erreinu despotiko hartaz nekatuta, aristokraziak bakartokiak bilatzen ditu gorteko eremutik kanpo. Hala, espazio berriak definitzen dira, hala nola kabineteko sekretuak, *boudoir*-a, ezkutuko pasabide eta eskailerak... Espazio horiek intimitatearen bilaketa erakusten dute, baita plazer- eta askatasun-indar ikaragarri bat ere. Erakusketan *petites maisons*-ak irudikatu genituen arkitektura-marrazki eta -tratatuaren bitartez, eta literaturaren bitartez, Jean-François de Bastide idazlearen *La Petite Maison* (1758) kontaketa laburrarekin. Jacques-François Blondel arkitekture-teorialariarekin elkarlanean idatzitako kontaketa horrek maitasun-erronka bat deskribatzen du, zeinean tokiaren edertasuna den limurtze erotikorako tresna.

Intimitaterako espazioen tradizio horrek XX. mendera arte iraun zuen. Horren adibide dira Adolf Loos arkitekto vienarraren eta Carlo Mollino arkitekto italiarraren barnealdeak, erakusketako bigarren ardatzean, *Babesleku libertinoak*, jaso direnak. Kontzeptu erabakigarria da

«Playboy arkitektura»n ere. Hugh Hefnerrek, aldizkariaren sortzaileak, gizonezkoa ezkontzaren uztarpetik ateratzea nahi zuen, espazio propio bat eskainiz. 1953. eta 1979. urteen artean aldizkariak gizonezko ezkongaiantzako apartamentu-proiektuak argitaratu zituen, baita arkitektura eta diseinuak Playboy gizonezkoaren definizioan izan zuen paper ezinbestekoa erakusten zuten barnealdean diseinuak ere. Ederki azaltzen du hori Beatriz Colominak, erakusketaren komisariotzaren aholkulariak.

60ko hamarkadako arkitektura erradikaleko taldeek Superstudio, Archigram, Haus-Rucker-Co edo Coop Himmelb(l)au «burbuila» deituriko espazioak imajinatu zituzten. Material berriekin liluratuta, espazio modelagarri eta puzgarriekin bezala, arkitekto horiek bizitzeko forma eta moduak berriztu zituzten. Diseinua gero eta gehiago ulertzen zen bilgarri bat bezala, gorputzaren luzapen legez. Nahikoa da Barbarella pelikularen espazioaz eta estetikaz oroitzea. 1968an Roger Vadimek filmatua, pelikulak Jane Fonda eszenaratzen du Paco Rabanneren metalezko janzki batekin, larru sintetikoekin eginiko arkitektura futuristetan, plastikozko krisalidak.

Erakutsitakoak, gainera, beste irakurketa bat ahalbidetzen zuen: ardatzetako bakoitzean, batetik, eredu tradizionalekin bat zetozen proposamenak aurki zitezkeen, eta, bestetik, heteroarauaren aurkako erresistentzia sortu nahi izan zuten proiektuak.

Bai, izan ere eredu tradizionalak iraultzeagatik eta elkarbizitza sexualerako komunitate-utopiak edo eskusiboki plazererako sortutako espazio pribatuak aldarrikatzeagatik nabarmendu ziren proiektuetako batzuk pribilegiatu nahi izan genituen. Normatiboa denarekiko zenbait erresistentzia-parentesiren sorrera, batez ere, arkitektura informaletik eta tokien jabetzetik jaiotzen dela azaltzen zuen erakusketak. Ez genuen ezkontideen logeaz edo burdelez hitz egin nahi, ezta ibilbide lineal eta kronologikoari jarraitu ere. Erakusketak, funtsean, memento historiko bi aldarrikatzen zituen: Argien testuingurua eta 60ko hamarkada. Horien arrazoibide eta proposamenek askatasunaren eta plazeraren nozioari emandako garrantziagatik eta itun sozial berri baterako asmoagatik xarmatu gintuzten.

Espazioek desioan duten eragina azpimarratzen zenuten, bai zuzenean arkitekturaren bitartez, bai zeharka deskripziorako tresna gisa literaturan. Erakustetan, halako zenbait espazio benetako eskalan erreproduzitu zenituzten.

Garaiko dokumentuen bitartez, arkitekturak desira bultzatzeko duen boterearen berri ematen zigun erakusketak, eta, aldi berean, botere hori sentitzea ahalbidetzen zigun. Hori izan zen eszenografiaren apustua. Horrela, ibilbideak giro ezberdinetan murgiltzeko aukera ematen zuten espazioak eskaintzen zituen.

Horietako bat instalazio handi bat zen, non Nicolas Schöffer jatorri hungariarreko artistaren *Sexu Denbora-pasetarako Zentroaren* zati bat berreraiki genuen. Forma organikodun eraikin hori hiri zibernetiko baten parte zen. Schöffer-ek 1955 eta 1969 artean garatu zuen proiektu hori, eta ez zen inoiz eraiki. *Sexu Denbora-pasetarako Zentroa* maitasun-

tenplu antzeko bat zen, jendea bizipen sexualerako prestatzeko sortua. Claude-Nicolas Ledouxen tenpluak dakartzkigu gogora. Baita Charles Fourier-en lana ere. Hark bezala, Nicolas Schöffer-ek garrantzi handia ematen zien plazerei, eta sinetsita zegoen esperientzia estetiko eta zentzumenezkoa gizartea eraldatzeko gai zela. Instalazioak koloreek, soinuek, lurrinek eta proiektzioek osatutako atmosfera batean murgiltzea proposatzen zuen, artistaren eskultura zinetikoek erritmoa markatzen zutelarik.

Beste espazio bat eleberri libertinoentzat gordetako irakurketa-kabinetea izan zen, espazioaren eta desiraren asmamen guztia erakusten zuena, bisitaria irudimenaren edozein abenturatara gonbidatuz. Kabinete horretan, Marie-Françoise Quignard espezialistak egindako XVIII.eko lehen argitalpenen hautaketa aparta ikus zitekeen.

Ondoren, Saderi bakarrik eskainitako espazioa genuen. Bertan, markesak bere gehiegikeriaren utopia narratiboa arkitekturarekiko eta arte eszenikoekiko bere grinetik nola eraiki zuen azaldu genuen. Maketa batean *Sodomako 120 egunak* liburuko Silling gazteluko kontaketeetako egongela berreraiki genuen, Sadeko markesaren testutik abiatuta.

Azkenik, iraultza teknologikoan erabat murgilduta gauden honetan: non aurkitzen dira, egun, sexurako espazio fisikoak?

Distantzia falta zaigu bizitzen ari garen hau bere osotasunean ulertzeko, baina bistakoa da orain arte sexurako bakarrik ziren espazioek desagertzeko joera dutela. Espazioaren desmaterializazioarentz goaz. Arkitektura gero eta gehiago ulertzen da ingurune psikosensorial bat bezala, *Modu abstraktuan maitasuna egin* lanarekin Pol Esteve arkitekto eta artistak azaltzen duen moduan. Proiektu horretan, diskoteken eta *rave*-en esperientzia espaziala ikertzen du; nola sortzen diren efektu orgasmikoak edo sexualitate desplazatukoak, argi estroboskopikoa, musika eta drogak bezalako teknologien konbinaketaren bitartez.

Egun, apps-ak bilakatu dira sexu garaikidearen benetako topaleku. Alegiazko errealitatea eta estimulazio teledildonikoaren teknologia ere barnean murgiltzen zareneko espazioak sortzen dabilta, denbora gutxian aurrez aurreko sexuarekin lehiatu ahalko direnak. Yann Mihn, estasi telepatikoaren bila dabilen artista, *Nooscaphe-XI Cybersex immersion engine* deituriko orgasmika totalaren makina baten prototipoan lanean dabil jada..

===